

Aldjezairia askatuta





Txomin Peillen Karrikaburu (Paris, 1932) idazlea eta euskaltzaina da. 1967an lehen liburua argitaratu zuenetik (*Gauaz ibiltzen dana*), dozenaka liburu argitaratu ditu eta ia literatura-genero guztiak jorratu ditu: nobela, poesia, narratiba, haur literatura, saiakera eta autobiografia. Saiakeraren arloan, hainbat ikerketa lan egin ditu, etnografiak eta hizkuntzalarietaz, batez ere. Batzuk aipatzearren; *Animismua Zuberoan* (1985), *Euskaldunen ingurugiroan (espazioa eta denbora)* (2001) eta *Baloreak Euskal Herrian eta beste gizarteetan* (2005). Hainbat fikzio lan ere argitaratu ditu, sari ugari irabaziz, besteak beste, *Itzal gorria* (1972), *Aintza txerriari* (1986), *Alarguntsa beltza* (2001).

Txomin Peillen Karrikaburu

Aldjezairia askatuta



LEHENENGO EDIZIOA
Hordago, 1982

TXALAPARTAREN LEHEN EDIZIOA
Tafalla, 2013ko apirila

© Txalapartak EDIZIO HONENA
© Txomin Peillenek OBRARENA

EDITORIAL TXALAPARTA E.M.L.
San Isidro, 35-1A
78. Posta kutxa
31300 Tafalla NAFARROA
Tel. 948 70 39 34
Fax 948 70 40 72
txalaparta@txalaparta.com
www.txalaparta.com

GURE LIBURUAK S.L.
www.gureliburuak.com

AZALA ETA BILDUMAREN DISEINUA
Esteban Montorio

MAKETAZIOA
Monti

INPRIMAKETA
Grafas Lizarra
Tafallako errepidea 1. Km.
31132 Villatuerta - Nafarroa

ISBN
978-84-15313-56-4
LEGE GORDAILUA
NA. 588-2013



Hitzaurrea

Joseba Sarrionandia



FRANKISMOAREN GAU LUZEAK ez zuen euskarazko goizalbarik hegoalde espainolean eta bizimolde tradizionalaren iluntzea ere argi elektronikoko frantsesez argitzen hasia zen laborarien eta azken artzainen iparraldean. Ehunka urteko euskal mundu zaharra, irratia eta gero telebista etxeetara sartzearekin batera, errotik ezereztatzen ari zen. Txomin Peillen Parisen jaio zen, xiberotar immigratuen seme. Han hasi zen gurasoen mendiko hizkuntza berde eta moldakaitza ikasten eta idazten. Lotsaz eta errabiaz hasi zela esan du inoiz Txominek, geure herriaren ohoreagatik, sumatzekoa zelako euskara hilko zela literatura onik eman gabe.

Halako lekuz kanpokotasun bat izan du beti Txominek, Montmartre gainean sortutako xiberotarrarena. Baina, berezko lekuz kanpokotasunari, haren barne indarrak irabazi dio beti halabeharrari zentzua. Goi mailako ogibide bat aukeratu eta frantses dotorean idaztera bidera zitekeen arren, Txomin

ez dirurik, ez fama onik eta irakurle eskukada bat baizik eman ez zezakeen hizkuntzan idaztera lerratu zen.

Baina, beste leku horretan ere, orduko euskaltzaileen ohiko molde, azalkeria eta konbentzionalismotara egokitu beharrean, beste ikuspegi bat proposatuko zuen, askea, kritikoa eta umoretsua. Hala sortuko zuen Jon Miranderekin batera *Igela*, euskal aldizkari-rik heterodoxoena zentzu askotan.

Horretan ari zela, lekuz kanpokotasun genetikoko horrek soldadu frantses ezarri zuen gerra kolonial gupidagabe batean. Hogeita bost urterekin, Txominen lekuz kanpokotasun sortzailea berriro destolestu zen egoera hartan. Bakezalea izanda, gerrara bortxaz igorria izan orduko, Armadako Osasun Zerbitzuan engaiatzea erdietsi zuen. Aljeriar zibilak ere sendatzen eman ahal izango zuen gerla denborara. *Infirmier-major* utzi zuten Taogrit herrian, Dahra mendietako Uled Abdala eskualdean. Komandanteak deitu zion behin, musulman zibilez gehiegi arduratzten zela abisatzeko.

Lekuz kanpo zebilela, alegia. Ez zekien komandante hark zein neurritan zebilen Txomin lekuz kanpo. Ez zen aljeriarrak artatzera mugatzen. Arabiar kulturaren zalea zen, eta kultura amazigharen zalea. Gainera, frantziar dominazioaren lekukoa izanik, erraz pasatzen zen lantokian bertan lekuz kanpora, «ate txarretik sartu» eta onusteko jendeak ikusi behar ez lituzkeenak ikusten zituelarik, gerra gor hartan zer gertatzen ari zen ikasiz. Tortura praktikatu ohi zela, esate baterako.

Lekukotasun eta lekuz kanpokotasun haien guztien fruitua da *Aldjezairia askatuta* liburua. Parisera itzuli eta euskaraz moldatua. Parte batzuk *Egan* eta *Saioak* aldizkarietan erdikusi ziren, baina liburua ez zen argitaratu 1982 arte, Hordago editorialean. Laster agortu zen eta, harrezkero, zaila izan da aurkitzen.

Aljeriarrekiko bere afektuaren eta bere enpatiaren froga da bost ipuinetako narratzailea afrikarra dela, europarra hiru ipuinetakoa den artean. Gero, egiaren bilaketa bat dago testu guztietan, ipuinetan nahiz azalpenetan. Pentsa, gerra gertatzen ari zen artean ez zela gerrarik. Hala esaten zuten behintzat frantses-frantsesek, gerra izateko bi behar direla eta han Frantziako Armada zegoela alde batetik eta hautsa bestetik. Estatua eta ordena zegoela alde batetik eta terrorismoa eta gaiztakeria hutsa bestetik. Edozein gerratan larriki zauriturik lehenengo erortzen dena egia da, eta Txomin egiaren erizaina bilakatzen zen idazlearen hala-holako tresnekin. Egia ostendua, izutua eta ohildua zen leku eta sasoiari, egiaren bila jardungo zuen. Eta ez egiaren bakarrik. Historia, berez, gizaki zehatzei gertatzen zaizkien jazoera andana kontaezina da, bata bestearekin erlaziorik gabekoak beharbada, kontraesankorrak ere izan daitezkeenak. Txominen idazkerak, egia errekuperatzeaz gain, egia horiei zentzu historikoa ematen zien.

Beste batzuek ere eman dute Aljeriako gerla-
ren testigantza euskaraz. Gertaeren orduan, *Eskual Herria* izeneko aldizkari moduko bat argitaratu zen, Aljerian zeuden euskal soldaduen mezuz osatua. Eta, Txominen liburu honen ondoren, Jean Louis

Davantek *Iparraren bila* poema liburua argitaratu zuen, Aljerian izkiriatu poemekin. Piarres Aintziartek, berriz, *Biziaren bazterrean* kontakizun autobiografiko sentibera utzi zuen. Xipri Arbelbidek ere *Gerla tresna bizidunak* eleberria eta, gero, *Euskaldunak Aljerian 1954-1962* testigantza bilduma argitaratu zituen. Ez zen Txomin Peillen lekuz kanpo sentitu zen euskaldun bakarra izan Frantziaren osotasunaren aldeko gerra hartan. Aljerian lurralde arrotzean sentitu ziren, jakina, baina haietako asko herrian bertan ere arrotz sentitzen hasi zen itzuleran.

Lekuz kanpokotasun hori aljeriarren artean ere gertatu zen. Aljeriar frantsesen artean, gogoratzekoa da Albert Camus bera eta nola esan zuen, 1957ko urrian Nobel saria eman ziotenenean, amaren eta justiziaren artean aukeratu behar balu, ama aukeratu lukeela. Ama Aljerian baitzuen, injustizia ere onartzeko prest azaldu zen, deduzitzen da, Aljeria frantses mantentzeko. Aljeriar independentisten artean, Mulud Feraun gogora daiteke, lehenengo aljeriar eleberriaren autoretzat hartzen dena, *Le fils du pauvre* argitaratu zuenetik 1948an. Kabilian sortua 1913an, Tizi-Hibel herrian. Aita Frantzia iparraldeko meatzetan lan egitera joaten zen aldika, baina 1928an istripua izan eta elbarri geratu zen. Muludek beka bat izan zuen Tizi-Ouzoun ikasteko eta, ikastetxeko logelak garestiak zirenez, misio protestantean hartzen zuen ostatu. Gero, ikasketak Aljer hiriburuan amaiturik, maisu bihurtu zen. Akulturazioa bikoitza zen, arabiar irakasle zelako, heziketa sistema frantsesean.

Gauez, keroseno argiontzi bat piztuta, Mulud Feraunek Kabiliari buruz idazten zuen, frantsesez, frantziarrek jakin zezaten. Bera ez zen anti-frantsesa. Alderantziz, zer huts egin du elkarrekin ezin konpondu izateko? «Elkar ezagutzea faltatu da, batik bat, ez baitugu elkar ezagutzen. Mende oso bat pasatu da jakin-minik gabe, eta axolagabezia kontziente horren uzta bildu da gero, maitasunaren erabat kontrakoa den hau guztia». Anti-arabiarra ere ez zen. Alderantziz, Aljeria independentearen alde zegoen. Baina, iraultzaileekin ere, askatasuna hondamenez betetzen hasi zen goiz-goizetik, *Journal* edo egunkarian 1956ko martxoan izkiriatu zuenez: «Ez da posible okerrak barkatzea gerrillariei. Ez da posible hainbeste injustizia barkatzea. Duela mende bete okerrak eta injustiziak sufritzen ari garela. Zertarako egiten duzue borroka zuek? Ez baduzue ezer aldatu behar, jendea bizirik utzi gutxienez, eta laga gaitzazue bakean. Soldaduek hiltzea umeak, emakumeak, ergelak, inozenteak ez da berria ez harritzekoa. Baina zuek ez zarete soldadu frantsesak edo jendar-meak. Ez ezazue zeuen burua *kaid* edo administratzailetzat hartu. Zuek ez duzue horretarako eskubiderik. Eta eskubide hori zeuentzat hartzen baduzue, guk gorrotoa itzuliko dizuegu zeuei ere. Eta herriak zuei beldur dizuen egunean, zuetaz nazkatzen den egunean, zuek ez zarete ja ezer izango». Jendea zoritxarreko makineriaren menpe ikusten du eta beldur da etorkizunaz 1957ko urtarrilean, *Moudjahid* aldizkaria irakurritakoan idatziko duenez: «Fede eta desinteres asko dago hogeita hamar orrialde horie-

tan, baina demagogia asko ere bai, pretentsio asko, ingenuitate eta antsia apur bat ere bai», baina ezin du susmo txar hau ekidin: «Menditar, ikasle, jende gizajoak, biharko zuen etsaiak atzokoak baino okerragoak izango dira».

Frantsesek bezainbeste daki frantsesez, baina ezin da frantsesa izan, arabiarrek beste daki arabiarrez, baina ezin da arabiarra izan. Kabiliarra da, baina kabiliarrek ez dute ezer izateko eskubiderik oraindik. Lekuz kanpokotasuna azaltzen da behin eta berriz Muluden izkribuetan: «Ai ene, zer naiz ni? Hainbeste etiketa dagoenean, nik ez ote dut neurea izango? Ni zer naizen esaten didate beti! A, bai, eta nik etiketadun aurpegia ipini beharko nuke, ezarri didaten etiketan sinetsi behar banu bezala. Ba ez, hori ez da nahikoa».

*Organisation de l'Armée Secrète*ko komando batek eten zituen bere lekukotasunak eta lekuz kanpokotasunak. Mulud Feraun eta beste bost maisu akabatu zituzten, irakaskuntza bilera batetik irtetean Aljer hirian, independentzia baino egun batzuk lehenago.

Mulud Feraunen heriotzaren, Eviango akordioen eta Aljeria independentearen mende erdi betetzean berrargitaratu da *Aldjezairia askatuta*. Denboraren distantziarekin argi ikusten denez, Txominek bere kontribuzioa egin zuen ipuin bilduma honekin euskarari literatura onik eman gabe hiltzeko posibilitatea ukatzeko. Gaztetako lan eder bat izan zen amaitu ez den biografia emankorreen.

Afrika iparraldean ofizio arraro bat zegoela entzun nuen behin: ur bilatzailearena. Ur-erioak,

ur-begiak, lurpeko urak aurkitzea, herrietara bideratzeko. Ubideak egin eta iturriak ere eraikitzen dituzte horretarako, eta zeregin oso inportantea da, ura behar-beharrezkoa delako eskas den herrialdeetan.

Bai euskararekiko eta bai besteen ezagutza eta errespetuarekiko –humanismoarekiko, zentzu zaballean– Txomin Peill enen bizitza osoko lana lehorraldeetako ur-bilatzailearenarekin konpara daitekeela iruditzen zait.

JOSEBA SARRIONANDIA

I
Atala

Aldjezairia askatuta



Ezagutze luzea, ezagutze gaitza

HAMABI URTEAK NITUELA zait herri honen oroitzapena gogoan sartu. Garai hartan, frantses *Ligue Maritime et Coloniale* delakoak, Inperioaz zabalkundea egiten zebilen erakutsiz nola Frantziak, delako herriak, hobetu, eratu, zibilizatu zituen; jakobino horiek eman itxura laster aldatu behar zitzaidan: urte hartan Aljerretik han soldadu zegoen lehengusuak kartak bidali zizkigun eta hango jende eta ikuspegiak Frantziatz oso bestelako agertzen zitzaidan.

Larraine Bentaberriko lehengusu hori Italiako gudaldia eginik Aljeriara zaurituta itzuli zen, garaiez hango gorabehera batzuk ezagutzeko eta guri kontatzeko: De Gaulle jeneralak Brazzavilleko mintzaldian koloniei autonomia hitzeman zien baldin Frantzia librean jarraitzen bazuten, halaxe askok Europaren naziengandik askatzeko gerretan larrua eman zuten. Hain zuzen, gure ahaidea Aljerren zegoela indigenek beren jabetasuna eskatu zuten; autonomia araudi-gai

bat idatzi eta argitaratu zen. Pariseko Legebiltzarrean ezkerrek, komunistek eta sozialistek aho batez aurka bozkatu zuten, eta eskuin muturrekoek ere bai, bakarririk demokristauak, MRPkoak, alde agertu. Erran behar da Lyoneko artzapezpikua alde mintzatu zela eta Aita Santuak esan zuela koloniako herriek poliki beren buruak gobernatzera utzi behar zirela.

Legebiltzarreko ezetzak gauzak berotu zituen eta Setif aldeko gizonak Kezentinara (Konstantinara) jaitsi ziren, jazarri, automobilerik su eman, saltegiak desegin eta bertako frantses zangobeltz batzuk hil. De Gaullek berak zuen orduan agindu Olibondoko lepotik hasita «terrorista» ibar guztia garbitua izan zedin, gizon, emakume, haur, etxe eta abereak galaraziz. Lan hori itsasotik marinak eta lurretik jendarmeek egin zuten. Larousse hiztegiak hamar mila bat hil izan zela aitortzen du, aljeriarrek batzuetan 120.000, baina ez zen hainbeste bizizale ibarrean, beraz lehengusuak zangobeltz batengandik jakin 40.000ak zuzenago dira. Nola nahi, genozidio gisakoa.

Pierre Bentaberrikoak zidan kontatu geroago aljeriarrak ohituraz, sinesteez, hizkuntzaz eta bizimoduz zeinen gugandik bestelako diren. Hamasei urteak nituela Pariseko Boulevard Saint-Michelen MNako aljeriar abertzaleak *Algérie Libre* saltzen ikusi nituen. Gazte ginen. Poltsikoan xentimorik ere ez, halere behin Moal bretoi lagun batekin, haiekin hitz egitera ausartu ginen. Gure hizkuntza baztertuak eta gure zapalketa aurkitzen ari ginen gazteentzat berogarria izan zen. Garai berean Parisen nahiz ezkerreko nahiz eskuineko jendeentzat ez zen «Aljeriako arazorik»,

frantsesek, Frantziak zibilizazioa ematen zieten, aurre-rakada izugarria eginarazten, Frantziaren zatia zen.

Aljeriar ideologiak hasieran musulman arazoa planteatzen zuen; abertzaletasuna, ordea, independentzia ez zen hain argi ikusten, Ferhat Abbasentzat ez zelako aurretik aljeriar naziorik izan; frantses hezkuntzak estatu eta nazio bi kontzeptuak nahasiz, mairu batzuek berdin pentsatzen zuten; aljeriar abertzaletasuna eta nazionalismoa, El Kahiran (Kairon) bizi ziren erbestetuen gogoetan Nasserren garaian garatu zen, eta gero Moskun ibiliz marxismoa txertatu. Eta 1954ko Domu Santuruz iraultza bat-batean zartatu zen.

Aldjezairia, Aljeria, beraz, beti nire bidean topatu izan dut eta hogeita bost urterekin armen hartzera deitu nindutenean, armadako erizain bezala joan nintzen. Herri hartan, *Sendagile Laguntza Doan, Assistance Médicale Gratuite* delakoarekin urte eta erdi han iragan nituen. Hemendik aurrera kontatuko dizuedan gehiena Dahra mendietako Uled Abdala tribuan entzun, ikusi eta ikasi dudana duzue.

Herrien izenak nola frantsestak izan ziren.

Zein ziren benetakoak

Aljeriako lau hiri nagusiak hauek dira: hiriburua Djezair (fr. Alger), beste hirurak, Uharan (fr. Oran), El Asnam (fr. Orléansville, *Duc d'Orléans* konkistadoreagatik), Kezentina (Konstantina). Gure El Asnam eskualdean, Dahra mendietan Ain Meran (fr. *Rabelais*,

frantses idazlea), Taogrit (fr. Paul Robert, Aljerian jaiotze egileagatik).

Eskualdeko hizkuntzaren eta kulturaren aldetik tartetxoak eta ezberdintasunak badituzte: mendebaldean Uharan alde arabiarra, bere Tlemzen hiri santuarekin marokoarren eskuetan egonik oraingo auzoaren kutsua du. Erditan izan da turkiarren eragin handiena; ekialdean Tunisiaren itzala nabarmen-tzen da, baita mendietan berberak bizi (kabiliarrak, auresak, xauiak eta nementxak), jatorrizko kultura zaharrena gorde dutenak.

Iraultza baino lehen, uled abdalatarren bizitza

Frantsesak, *rumiak*, hemeretzigarren mendean, ez ziren Dahra mendietan erraz kokatu Abd El Kader (AEK) emir ospetsuak Marokotik erdu eta luzaro gudukatu baitzituen, eta bereziki Sidi Musa aldean behin garaitu; gero Khaled ere, AEKren semea, horko alde ibiliko da eta handik berrogeita hamar urteren buruan, 1919 inguruan, abertzale ideia berri eta modernista berriekin jazarriko da, baina *rumiak* Marokon sartuz bere iheslekua galdu zuen: Aljeria gutxi gorabehera kabiliarren bizpahiru jazarrikan kanpo, ia hogeita hamar urtez bakean egongo da. Jendeak erraz jazar baitzitezkeen, frantsesek beren ohiturak, beren lege zaharrak utzi zituzten, baina feudal sistema sendotu, lagundu baita kontrolatu ere.

Iraultzaraino mairu buruzagi nagusiak *kaid*, *aga* eta *baxaga* ziren: *kaida*, gure auzapez edo alkate, *aga*,

frantses *sous préfet* aren antzekoa eta *baxaga préfet* edo gobernadorea; horiek musulmanei baizik ez zieten agintzen eta denak Aljeriako frantses gobernadore Nagusi (*Gouverneur général*) baten menpeko ziren.

Aga Brahimiren lana

Buruzagi horiek ez ziren beti antzinako aitonen semeetan herriek hautatuak, baina bere gustura *rumiek* aukeratuak. Ezagutu dudana *aga* Brahimiren igokundea ohargarria da. *Rumiek* Uled Abdalako *aga* izateko «herriko mutil», aguazil bat, gizon handia, gotorra, gogorra, maltzurra zelako hartu zuten.

Brahimik zituen uzta zergak garitan, abere zergak bizitan biltzen; haserre zenean zerga doblatzen, gero saltzen eta erdia bere patrikan gordetzen; beste erdia El Asnameko zerga biltzaileari uzten.

Dokumentazioa egiteko haren etxetik igaro behar zen, haren bulegora etorri. Orduan, hiru aterabide baziren: aitak dirua izanez gero jaiotza ordainduz deklaratu zezakeen; dirurik ez bazuen eta andere polita edukitzen, hura bidali, *agaren* ohean egonaz sortzea ordain zezan; azkenik, dirurik ez zenean eta ama itsusiegi, haurra jaiotegun gabe, sorleku gabe, izaterik gabe bizitzera bortxatu zen: hots esklabo legean erabil zitekeen, noiznahi hil zitekeen: horrelakoek batzuetan esaten zuten Sanpi zirela, esan nahi baita *SNP* (*Sans Nom Patronymique*). Berdin, norbait *agari* bihurtzen bazitzaion, hura ihardukitzera ausartzen bazen, isunez ordaindu behar zuen; ezin bazuen,

ontasunak hartzen zizkion eta zergak ezin ordainduz batzuk bere etxe eta lurak hari uzten.

Aga Brahimiren itzala

Brahimi ezagutu nuenean, gerra bere erditan zegoen 1959an, iraultzarekin boterea galdua zuen: frantse- sen aurka mintzaturik, haiek goaitatua zen. FLN hari zergak ematen omen zizkion, bestela nola egongo zen lege-lapurretekin eraiki bere jauregi txikian hain lasai agertzen zitzaigunean. Gizon handia, jaun antzo, zarual edo zaragolla handiekin, *kaxabia* zuriarekin jantzia, buruan *xexa* herritar jantzetan; behin maki- la eskuan bidean herrira heltzen ikusi nuen, gizon zahar bat bideko errautsean ahozpetu zitzaion eta hor belauniko *kaxabia* ondora musu egiten egon hark zutitzea agindu arte; gero andre bat osoki belatua hurbildu eta *kaxabiaren* sorbaldan musu egin zion.

Aga Brahimi eta zuzenbideak

Bera hala gaizki ibiliz ez zuen epaile bezala besteei ezer barkatzen. Lapurrarekin: *agari* ekartzen ziotenean zernahi ebatsirik ere, bi metro luze zen gure gizonak *matrak* makila hartzen zuen eta nekatu arte bizkarretik behera, burutik behera ohoinari, ohointzaren arabera, egurra ematen; gehienetan ebaslea, nahiz andrea nahiz gizona izan, zauritua edo hilik uzten zuen. Horregatik, oraindik han nen-

goanean eta haren indar garaia joanik ere, herrian ez zen lapurretarik. Hiltzailearekin berdin egiten zuen, baita iheslaria inork lagundu ez zezan etxe-koak, adiskideak eta lagunak pertsegitzen ere. Erdi Aro giro horrek Dahra mendietan iraultzaraino iraun zuen, frantsesek ziotelarik ez zutela sistema horretan eskurik sartu nahi. Haren lekuan administrazio erdi militarra, SAS, jarri zuten.

Uled Abdala gizajendearen gizarte egitura

Dahrako magrebtar gizartean kasta gisakoak baziren eta indar gutxiagorekin ezagutu nituen. Kasta bakoi-tza herria jendeztatu duen arraza bat eta batzuetan hizkuntz adar bat da.

Behereko mailan, diru aberastasun aldetik beltzak: Saharako oasietan esklabo izanak, *harratin* delakoen semeak, frantses koloniarekin Aljeria osoan sakabana-tu zirenak. Kolorea ikusi baino lehen deiturak beren jatorria sala zezakeen: M'Ghani, Sudani, M'Barek. Jende horien ezaugarri nabarmenena lurgabetasuna zen. Bizibidez gizonezkoak automobil gidari, andrez-koak dantzari, kantari, ipuin kontalari ziren. Mendietan gutxi ziren, gehienak kalean bizi eta azken garaie-tan hirian morrontzan, neskame eta zerbitzari. Beren artean ezkontzen ziren, eta egiten zirenean doterik gabe. Arabieraz gainera, frantsesez hitz egiten zuten.

Maila bat aberatsago edo ez hain txiro, larruz argiago, beltzak (mulatoak) eta ñabarrak, ogi alearen koloretik gartzainaraino; mendi lur txarrenetan bizi,

askotan artzain erdi ibiltari ziren; etxeak bazituzten baina, sarritan, gizonezkoak Frantziara lanera joaten ziren, non ez zuten kolonoen baserrietan lan egiten. Emakumeek *jo-errazak* izateko ospea zeukaten eta mendi gizarte batentzat prostituta franko bazen eta ez zirudien gaizki ikusiak zirenik. Ezkontzen zirenean senargaiak emaztea aitagarrebari dote batekin erosten zion, eta prezio erditan ez bazen dontzeila. Dote horren irabazten gizonak zahartzen ziren eta berrogei urteko gizon bat hamabost urteko neska batekin ezkontzea ikusten zen. Ez baziren Frantzian egon, ez zekiten frantsesez hitz egiten.

Goiko mailan, aberatsenak indigenen artean aljeriar zuriak ziren: korugliak turkiarren ondokoak, eta berberek arabiarrez inguratuak eta frantsesek arabizatuak. Ain Meran, Ain Serdun eta Kasba herrixketan berberek asko ziren. Berberek beren artean eta korugliekin ezkontzen ziren. Berbereen ekanduz, senargaiak andregaiari zion dotea ematen. Hobeki bizi eta handiago, gotorrago ziren maiz, ile hori eta begi urdin ez zirenean, larruz zuri ziren, behintzat. Uled Abdalako muinoetan bizi ziren. Nekazari eta ortulari onak ziren, garia, garagarra ereiten zuten, baina gehienbat aldapetan pikondoak, limoiondoak, lirainondoak eta albtxikondoak lantzen.

Menditarrak artilezko *albornoz* marroiekin edo *gandura* zuriekin ibiltzen baziren, muinoetako biztanleak europar jantziz edo herriko soineko fi nenez, *kaxabiaz* jantzirik.

Gero kasta batean andreak zein herritakoak ziren tatuaje batzuek erakusten zuten. Kasta bakoitzak bere

islam motatxoa zeukan, baina ohitura zenbaitez kanpo ez dut barrutik ikertzeko astirik izan. Santu edo marabu gizonen kultua eta haiei egin *kuba* ermitak, baliman, antzinako kristautasunaren aztarnak izan behar zuten.

Europarrak kasta bereizi bat ziren, besteak baino gutxiago ziren besteek baino zuzenbide eta eskubide handiagoekin, eta nahiz gutxiengoa izan, politika biltzarretan nagusi. Gure mendietan oraindik bizi ziren kolonoek magrebtar arabiera hitz egiten zuten, baina kalean gutxiago zangobeltzek, komunistek barna gaitzesten zuten hizkuntza hori eta ez zuten ikasi nahi, erlijioarekin lotzenegi zutelako. Uharanen (Oranen) gaztelaniaz hitz egiten zen eta Aljer aldean malteraz, baina Dahra mendietan ez.

Noizik behin jendarmeak kolonoen bisitatzera zetozen. *Rumiek*, beren alkatea, *maire* delakoa, zeukaten, posta etxea, frantsesezko eskola, basozainen etxea, Baserritar Medikuntza Doakoaren anbulatorioa eta eliza bat. Lur hoberenak soldadu izan ezker-tiar eta beren gogoz iheslari ziren alsaziar erbestera-tuei eman zizkieten. Muinoetan mahastiak egin zituzten, oraindik Parisen hango Dahra ardoa salgai da.

Rumiak ez ziren lehenbiziko kolonizatzaileak izan. Aurretiko jatorri zaharrenetarik lurrontzien teknika zegoen, geometria marrazki marroi batez apainduak, hots berbereen tankeran. Sidi Musan feniziarren hilarriak baziren, Kalaan, berriz, erro-matar eta feniziar hondakinak gotorleku hartan. Agian, garai hartatik zen etxegintza geratu: teilatua teila biribilez eta patioa etxearen barrura irekitzen *villa* baten tankeran. Sineste aldetik kristau sustrai

gutxirekin batean, animista sinesteak oso sartuak omen ziren, bereiziki hilei buruzko ohiturek irauten. Kolonizatze sakonena musulmanena izan zen, arabiar eta turkiar inbasoreena. Korana arabieraz idatzia delako arabierak bertako hizkuntza mota asko galarazi zituen. Islama zen nagusi hamar milioi aljeriarrentzat, baina Ipar Afrika guztian bezala gudak epeldu edo hoztu zituen sinesmenak. Han nengoen garaian uste dut berez gizarte hori aldatzen ari zela, ez *rumien* ekintzaz.

Ohitura zaharreko sendia eta etxea desegiten ari zen. Gazteak ez zuten areago etxeko zaharrekin bizi nahi, holako etxadietan amaginarrebek, sarritan, gogorki agintzen zutelako. Zenbat bider ez dut entzun eta behin ikusi frantses guda garaian eraiki sas administrazioa berrian, nahiz emaztea, nahiz gizon gaztea kexatzera etortzen amaginarrebak eman jipoi edo tratu txarrengatik. Nekazari ez ziren gazteek, armadakoek, funtzionarioek, salerosleek emaztea hauta zezaketen eta beren gogokoarekin ezkontzen; gazteek emazte bakarra, bakoitza eduki nahi zuten eta neskek berdin bigarren emaztea nekez onartzen. Halere, oraino, baserri munduan neska asko, txikian erregina, hamabitian erdi esklabo, hamalau urterekin ezkondu eta preso amaginarreba izan arte, orduan berriro erregina bizi ziren, artean goseak edo eritasunak hiltzen ez bazituen. Zoriontsuenak, zuriak.

1954. urteko Domu Santuru eguna

Egun hartan *rumiek* ezusteko gaitza hartu zuten, gizon armatuak hiritik atera eta Dahra mendiaz behin-behineko jabetu ziren. Kolono etxe baztertuak, sakabanatuak erre, barruan zeuden *rumi* guztiak hil eta beren legea ooren gainean jarritz, herrixka ia guztiez jabetu. Bi urrats atzera egin ondoren kolono askok urrats bat aurrera egin zuten eta gorde ziren hirietatik pixkanaka beren lurretara itzuli. Bi urtez FLN zeritzon gerrillari taldearen eskupean egon zen, kolonoak beren etxetatik gutxi jalgiz; erabat utzitako lurrez uled abdalatar artzainak jabetu ziren, baina basozain etxeak eta anbulatorioak erre zituzten.

Frantziak ez zuen etsi, urte eta erdi baten buruan deitutako kintoko soldaduak Aljeriara bidali zituen, baita soldadutza berriki bukatu zutenak ere berriro deitu, *rappelés* delakoak; zangobeltzengatik gudan sartuek ez zuten gudukatu nahi eta hasieran iharduki gabez asko hil ziren. Frantses armadari hiru urte kostatu zitzaion Aljeriaren berriz okupatzea; orduan, FLNko *mudjahid* edo *felagak* gerrillan sartu ziren, egunaz ezkutuak, gauaz mendietan kurri baita alderdi frentea egin ere (polimili bezalakoa). Indarrez, berehala, FLNk, Messali Hadj, Beluza herrian hil, eta Frantzian, MNA abertzale moderatuak tirokatuz baztertu zituzten.

FLNren gudu bideak ikusi eta entzun ditudan bezala

Baliteke ez dudan dena argituko, eta ez du Dahra mendietan gertatu dena argitzeko baizik baliorik izango; kalean besterik gertatzen zen, baita Tunisia eta Maroko mugetan ere oso bestela. Gerrilla egitura hori ez zen hasieratik eratu. Bi urte geroago, 1956. urteko abuztuaren 26an, Sumam ibarrean, Sahel Sumamem, Kabilia eskualdean Aljeria guztiko iraultzaileak biltzen hasi ziren. Orduraino, herrian gertatu guztia helburu argi gabeko jazarpena izan zen: «Frantsesek har bitzate maletak, bestela hilkutxa». Orduan, Iraultzak bere xedeak, bere eginbeharrak, bere bideak mugatu zituen eta horretarako hitzarmen bat egin: Aljeria gure aberria da, askatasun osoa lortu eta kausitu behar dugu, ekonomia aldatu herri xumearen probetxutan izan dadin.

Garai hartan OPA politika erakundea isilpean herrian jarri zen eta frantsesek ALN bezala ezagutzen zuten Nazio Askatzearen Armada, *Armée de Libération Nationale* delakoa, antolatu zuten, buruzagitza Tunisia askean jarriz. Aljeria sei *wilaya* edo probintzian zatitu, zati bakoitza *mintaka* txikiagotan, mintakak *nahiatan* eta nahiak *kizinetan*. Azken horretan, *kizinean*, zen gudukatzen ehun eta berrogeita bosten bat gizonezko taldea, *katiba*. *Katiba* horretan, *mudjahid* gudari jantziez kanpo, *muzebel* aukerazko laguntzaile frankoz lagundua zen.

Iraultzaren Nazio Legebiltzar eta gobernua Tunisian jarri zen, ororen buru. Biltzar horrek, gudariak hautatu hogeita hamalau gizonen era-

tua, Iraultzaren goien agintea zuen, eta Ekintza Elkartzaille batzorde eragile bat, goikoaren erabakiak eragiteko. Kanpoan ere OPAk lan egiten zuen, atzerriko aljeriarren artean zergak bilduz eta atzeritarrei beren iraultza ezagutaraziz; askatasuna erdietsi ondoren *paisano* horiek dute boterea hartuko eta *wilayatako* buruzagiak baztertuak itzaliko.

Bitartean, frantsesak berriro herriaz jabetu zirenean eta zazpi ehun soldadu Uled Abdala eskualdean eduki, mairu asko, duda-mudan, itxaroten hasi ziren; iraultzak feudal erakundeaz askatu zituen, baina gizon asko lanik gabe zeuden eta nonbait milioi bat, halabeharrez edo, frantses armadatik bizitzen hasi, nahiz baitezpadako *harki*, nahiz osoki soldadu sartuz. Iraultzak lana, berdintasuna eta anaitasuna ekarri behar zuen (eta ez zituen ekarriko). Anartean, bere guda eramateko FLNk zergak biltzen zituen, baita ordaindu nahi ez zutenez gogorki mendekatzen ere. Nahiz mendietan, nahiz kalean, nahiz atzerri urrunetan zergalariak baziren.

Bestalde, eta hori musulmanetan maiz gertatzen da, gudua zela-eta lehenbiziko ekintzetan, kantu eta dantzak debekatzea izan zen; huts egiten zuenak makila zigorra bizkarrean; ondoren, tabako debekua izan zen, *Bastos* frantses tabakogileari, Aljerian monopolioa zuenari, kalte egiteko: erretzen ikusten zena atxilotua zen eta sudurra mozten zitzaion. Denborarekin, eta guda taldea, politika taldea espezializatu ondoren, ekintza sakonagoak obratu zituzten. Herri bakoitzean Seien Batzordea sendotu eta berriro politika zabalkundea egin. Atzerrian geroago

eta adiskide gehiago eginik, Kuba, Ipar Amerika, Errusia, Jugoslavia eta abar.

FLN armada, esan bezala, *wilayatan* zatikatua zen, gutxi gorabehera frantsesezko *région militairen* handitasunekoa; *wilaya* bakoitzak komandantea bazuen eta hark gudari *katiba* askori agintzen. *Katiba* batzuk berrehun *mudjahidetara* iristen ziren. *Katiba* manea erraza zen, ezkutu erraza zen, gainera guduan leku-ko *muzbel* arropa gabeko eta zaharrago batzuek lagundurik ziren, erdiak borrokatzen ziren artean, beste erdikoak zelatan eta iheslarien zaintzaile.

Beren ekintzen xedea hauxe zen. Ahalik eta etsaiari arma gehienik hartu; komunikabideen eta garraio bideen segurtasuna nahasi, baina benetako gudu handiei ihesi eginez; herri oso batez jabetzea ez saiatu; gauaz agertu, egunaz desagertu. Nola egiten zuten: telefono eta argi zutoinak hautsi; errepideetan minak jarriz, oroz gain frantsesek igaro behar zutenean; gauaz frantses fortin baztertuak tirokatu urrundik etsai soldaduen aspertzeko; eta guztien gain arratseko orduetan, ilunabarrez, segada enboskadak eginez, bizpalau ibilgailu mendietan gora zetozenean edo haitzarte baten atakan sartzen zirenean edo soldaduak sasi handien artean zebiltzanean, hiru FMren su artean hartzeko, gero erdi ilunpean armak hartu eta ihes egiteko. Horiek ziren Dahra mendietan ikusten ziren gudu taktikak.

Frantsesak gehiago izanki, *mudjahidak* gaizki erabiliak ziren eta tartean zeuden zibilak ere, hartako FLNk lurpeko ospitale eta janari tokiak antolatu zituen, batzuetan sasi azpitan besteetan *matmorra*

antzinako soto zaharretan. Behin, gure mendietan lau mila frantsesek, iluntze batean, laurogei bat *mudjahid* inguratu zituzten, biharamunean ez zuten bat ere harrapatu: horrelako gerran ihes egitea ez da beldurti izatea, baina beharrezkoa. *Mudjahidak* militar arrokekin zebiltzan, arma automatikoekin, *muzbelak* menditarrez jantzita, fusilekin. Preso hartuak zirenean, *paisanoak* askozaz gaizkiago tratatuak ziren, aitorrarazteko egiten zitzaizen tormentuez kanpo.

Han nengoen azken urtean «bakegintza» (*Pacification*) hasia omen zen, lehen sei hilabeteetan «poliziagintzak» (*Maintien de l'Ordre*). Azken horrek gure artean sei kintoko soldadu hil zituen, gero «bakegintza» garaian hogeita lau.

Bestaldeko hilak ere asko ziren, FLNk hiltzen zituen traidorez kanpo edo ustekabean, menditar franko frantsesek tirokatuak izan ziren, artzainak, andreak egur biltzen etxera sartzen ari zirenean, baita nekazaria ere debekatutako eremu gorri batera mando baten bila joan eta. Tiroek baino gehiago goseak haur txikietan hil ugari egiten zuen, toxikosi gaitzarengatik eta oraindik tokika jarraitzen zuen Kwashiorkor delakoagatik.

Frantsesen bilakaera

Aljerian diruak zituzten bankuek 1957. urtean herri horren uztea erabaki zuten; zangobeltz aberats handiak joanik European, lur, lantegi etxeak erosi zituzten, zangobeltz txikiek han egon nahi zuten Aljeria

frantsestuz eta « *Algérie Française* » oihuekin De Gaulle 1958. urteko maiatzean boterera deitu zenean. Handik aurrera, lau urtez jenerala aljeriarrei zela erabakitze eskubidea, pixkanaka, autodeterminazioaren alde jarri zen, frantses administrazioa baita armadaren zati bat ere Frantziara joatea apailatu zuen. Armadako *Action Psychologique* delakoa herriz herri, *aduez aduar* De Gaullen mintzaldiak entzunarazten eta arabierara itzultzen ibiliko da.

Halako batean, gogoratzen naiz sendagilearekin lanean jarduten genuelarik *Action* delakoaren bozgorailuak automobil batetik han eseriak bildu ehun bat jendeei azaltzen ziela hiru aterabide, hiru irtenbide zirela: askatasun osoa (inor ez zen higitu), frantsestuak izatea (inor ez zen zutitu), berjabetasuna frantsesen diru laguntzarekin (denak zutitu ziren); azken hau zen De Gaullen « *l'indépendance dans l'interdépendance* ».

FLNren eraginaren hausteko bi bide hartu ziren: bata mendietako etxe sakabanatuetan bizi zirenak espainol errepublikarren gisa zelai itxietan, *smala* izenekoetan, batu eta etxeak aterpe izan ez zitezen desegin. Bestela, auzune batzuetan autodefentsa eratuz jendeak etxeetan egon edo etxetara itzuli ziren, egunaz frantsesei eta gauaz *mudjahidei* abegi ona egiten zieten.

Lehenbiziko bi urteetan izan ezik, *felagak* ez ziren frantses auzotegi edo herri oso batez jabe izan, eta soldaduen kopuruarekin amore eman zuten, nahiz Dahrán, nahiz Aljeria osoan iraultzaileek ez zuten inoiz frantsesen fortin batez jabetzea erdie-tsi, ez eta lur eremu batean agintari izatea kausitu,

gauaz mendietan ez bada, aldiz FLN politikoa bai, nonahi zegoen eta ez hain ikuserraza. Beraz, militar-ki inork ez zuen osoki irabazi. *Mudjahiden* lana, eraso-eraso, higadura eragiketa izan zen eta azkenean armada eta Frantziako frantsesen aspertzea irabazi zuten; pixkanaka ezkertiarrak, baita gero gobernu-ko eskuindarrak ere, Frantziaren joatea apailatzen hasi ziren; hain zuzen, gorago ikusi dugun *Action Psychologique* delakoa Frantziako jende eta egunkari bakan batzuen lana izan zen.

Garai hartan, hango giroan idatzi nire ipuin bat Donostian *Eganen* argitaratu zidaten, baina Parisen argitaratzen zen *Elgar* eusko aldizkarian euskaldun sozialista batek, lan horren itzulpena frantsesez ematea ukatu zidan, «*le sujet n'est pas basque*», ez omen zen euskaldun gaia (gero konturatu nintzen armadak egin torturak aipatzen nituelako izan zela). Hain zuzen, urte batzuk lehenago euskaldun horren adiskideek, alderdiak eta nagusiak eraman zuten politika ezkertiarra ez zen oso ederra izan eta ezker-erria eskuina baino jakobinoago izanki, ezker-erria aljeriar iraultzari buruzko eta sozialista izango zela Aljeria jakin arte, bere jokaera berandu aldatu zuen.

Aljeriar politika erakundearen garaipena 1962ko martxoaren 19an Evianen izenpetuko den bakea; ez du horrek esan nahi *mudjahidak* alferretan borrokatu zirela, zapa indarra izan dira, frantsesek amore eman zezaten eta gutxiengo horrek bere koloniazko boterea utz lezan.

Duela urtebete, 1960ko azaroan Aljeria utzi nuen baino lehen, OAS izeneko frantses eskuin muturre-

ko talde klandestinoa, goratik, *Algérie française* eskatzen eman zen. Behin, Aljerren, hiri nagusian zangobeltzak manifestatu ziren eta hori jakinik Taogriteko kabila saleroslea frantses ikurrina eskuan jendeak biltzen ibili oihuka «Ez oasari!, ez frantses Aljeriari!».

Geroztik, Parisen irakasten nuelarik, Banon izeneko neska bat ikasle izan dut eta berehala ezagutu: etxeok ez zuten sekula mendiz bestaldean, itsas bazterrean zegoen baserria utzi; ehun kilometrotan azken kolono bakarrak izan ziren eta iraun gogo zuten beren gotorlekuan eta armatuak ibiliz, baldin berritan frantsesek eta behin mairuek aita eta bi semeak ez balituzte ustekabeen hil. Banon emaztekiak maleta hartu eta Frantziara itzuli ziren.

Uled Abdala guztian Taogriten izan da herriko azken zangobeltza, Martin abizeneko andere xaharra, frantses hilerriaren zain, beste guztiak beldurrak eraginik ala zerbait kalte eginik joan dira.

Frantsesak joan eta jendeak gaizkiago bizitu izan dira, lur lana bereziki eragabetu da; hori da askatasunaren saria, ezin baita gizona bere etxean, bere lurretan morroi bizi. Halere, hainbeste miresten dudana arabiar kulturak inperiokeriaz pairatzen ikusi ondoren, kondenagarria bilakatu zait, bere askatasuna hartzen duen unean berbere gutxiengoan, kabiliarren, tuaregen, xauaiaren, aurestarren, nementxarren kultura zapaltzen dabiltzanean.

Parisen, 1961ean